Bilgunea eta Euskadiko Liburutegi Sistema

2026 martxoa

c/ Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
– tel. 945 01 94 74 –
e-mail: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

Liburutegiak

BILGUNEA

a) Definizioa

Bilgunea Euskadiko Liburutegi Sistema osatzen duten liburutegien informazioa kontsultatzea eta eskuratzea errazten duen tresna da.

b) Ezaugarriak

Bilgunea katalogo kolektibo bat da, **Euskadiko liburutegi publiko zein pribatuetan** aurki ditzakegun liburu, musika, zinema, aldizkari eta abarrei buruzko milioika erregistro bibliografiko eskuratzeko aukera ematen duena.

Euskadiko Liburutegiei buruzko Legearen 9. artikuluan informazio bibliografikorako sarbideari buruzkoan, honako hau zehazten da: "Eusko Jaurlaritzan kulturaren arloko eskumenak dituen sailak **bibliografia-informaziorako irispidea bermatuko die Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiei**, Katalogo kolektibo bat sortuz".

Katalogo kolektibo hori **-Bilgunea- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Liburutegi Zerbitzuak** koordinatzen du, eta **Euskal Autonomia Erkidegoko** erakunde nagusietako liburutegien parte-hartzeari eta lankidetzari esker eguneratzen eta mantentzen da.

Informazioa ahalik eta eguneratuen mantentzeko, erregistroak kargatzen dira, gutxienez, urtean behin. Parte hartzen duten erakundeek liburutegiak kudeatzeko hainbat programa erabiltzen dituzten arren (Koha, Sierra, Janium...), informazio guztia **AbsysNET programaren OPAC webgunean** txertatzen da.

c) Erabilera

Bilgunea **katalogo kolektibo** bat da, eta bertan **Euskadiko Liburutegi Sisteman** dauden mota guztietako liburutegietako **baliabideak bilatu eta aurkitu** daitezke.

Baliabideak **sistema osoaren aurka bilatu daitezke edo liburutegi zehatzak aukeratuta**, hala nola, EAEko Administrazioaren liburutegiak, Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomo eta sozietate publikoak, Foru Aldundiak, Ondare bibliografikoa, Udal liburutegiak, Unibertsitateak, eta Beste erakundeak.

Baliabide bat hautatzean, Bilguneak datuen **jatorrizko erakundearen katalogora eraman**go du erabiltzailea.

EUSKADIKO LIBURUTEGI SISTEMA

a) Definizioa

Euskadiko Liburutegi Sistema Euskal Autonomia Erkidegoko organo, liburutegi eta liburutegi-zerbitzuen multzo antolatua da eta liburutegi-baliabide guztiak hobeto aprobetxatzea du helburu, elementu guztien **koordinazioan eta lankidetzan** oinarrituta. (11/2007 Legea, 6. art.)

b) Osaera

Hauek dira Euskadiko Liburutegi Sistema osatuko dutenak:

a) Irakurketa publikoko sarea.

b) Euskadiko Liburutegia.

c) Unibertsitate eta ikastetxe publikoetako liburutegiak.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpekoak izan arren, irakurketa publikoko sarean sartuta ez dauden liburutegiak.

e) Irakurketa publikoko sareko kide izan gabe, Euskadiko Liburutegi Sisteman sartzen diren liburutegiak eta liburutegi espezializatuak.– Sisteman sartzeko, liburutegiaren titularrak hitzarmen bat sinatu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kulturaren alorreko eskumenak dituen sailarekin.

f) Liburutegien alorrean eskumenak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko organoak.

c) Helburua

Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak ahaleginak egingo ditu Euskadiko Liburutegi Sisteman sartzen diren kideek aukera izan dezaten **politika bateratu**ei ekiteko, **informazioa trukatzeko**, **liburutegien arteko maileguak** koordinatzeko, **edukiak sistema digitaletara edo bestelako euskarrietara** pasatzeko prozesuak planifikatzeko, **liburutegi-ikerketak** egiteko eta **liburutegietan informaziorako eta komunikaziorako irispidea izateko zerbitzuak** garatzeko (11/2007 Legea, 10. art.).

PARTE HARTZEA

1) Hitzarmena sinatzea

Euskadiko Irakurketa Sare Publikokoa ez den liburutegi bat **Euskadiko Liburutegi Sistema**n sartzeko eta, ondorioz, **Bilgunean** agertzeko, beharrezkoa da **hitzarmena** sinatzea dagokion liburutegiaren eta **Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Liburutegi Zerbitzua**ren artean. Hitzarmen horrek Euskadiko Liburutegi Sistemaren esparruan erakundeen arteko lankidetza eraikitzeko oinarriak ezarriko ditu.

2) Datuak bidaltzea

Urtean behin gutxienez, Liburutegi Zerbitzuak **katalogoen erregistroak** eskatuko dizkie Euskadiko Liburutegi Sistemako erakundeei, Bilgunean integratzeko.

Erakundeek **MARC formatuan bidali beharko dituzte beren erregistro bibliografikoak** eta, ahal izanez gero, UTF-8 karaktere-sorta.

MARC formatua tresna garrantzitsua da, eta informazio bibliografikoaren **normalizazio-, bateragarritasun- eta transferentzia-maila** optimoa lortzea du helburu, ordenagailu bidez irakurtzeko modukoa. Gainera, **liburutegien arteko lankidetza eta baliabideak eta zerbitzuak partekatzeko** aukera ematen du (BNE).

3) Bilgunean sartzea

Datuak bildu ondoren, Liburutegi Zerbitzuak **Bilgunea eguneratu**ko du erregistro berri guztiekin eta dauden erregistroen aldaketa posibleekin.

Horrela, Euskadiko Liburutegi Sistemako **liburutegi guztien erregistroak** Bilguneko OPACen jasota egongo dira, **erabiltzaileek** parte hartzen duten **edozein liburutegiren baliabideak aurkitu** ahal izango dituzte eta Bilguneak bilatzen duten alea duen **erakundearen katalogora** bidaliko ditu.